

# AUTOENPLEGUA BABESTEKO ETA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA

## INICIA PROIEKTUA 2017

### 1. oinarria. XEDEA.

Diru-laguntza honen onura publikoa da pertsona eta elkarteei sostengu ekonomikoa eskaintzea autoenplegua sustatzeko.

Deialdi honen xedea da herrian sortutako enpresa kopurua handitzea, enplegua sortzeko eta, ondorioz, ekonomia eta gizarte garapenean eragiteko Zizur Nagusian.

Finean, autoenpleguaren bitartez ekimenen sorrera sustatzea eta mota guztietako ekimen berritzaileak abiatzen laguntzea.

### 2. oinarria. DIRUZ LAGUNTZEN AHAL DIREN JARDUERAK.

Diruz laguntzen ahalko dira ondoko atal hauetan aurreikusitako jarduerak, 2016ko abenduaren 1etik 2017ko urriaren 31ra bitarte gauzatzen badira.

- a) Enpresa sortzeko *hasierako gastuak*.
- b) Jardueraren lehenengo 3 hilabeteetako *gastu arruntak*.

Zehazki, ondoko jarduera hauek laguntzen ahalko dira diruz:

- **Hasierako gastuak:**
  - Zizur Nagusiko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) alta ematea.
  - Irekitzeko lizentzia.
- **Gastu arruntak: jardueraren lehenengo 3 hilabeteetakoak:**

Diruz lagunduko da gastuaren zenbatekoa, BEZa gabe.

Diruz laguntzen ahal diren kostuak honako hauek dira:

- **Lokalaren alokairuaren gastu arruntak:** gehienez ere, jarduera hasi eta alokairuaren lehenengo 3 hilabeteetarako emanen da diru-laguntza.

*Kanpoan gelditzen dira:*

Errentatzaile eta errentariaren arteko harreman juridikoa edo ahaidetasunekoa duten alokairuak, odolkidetasunaren edo ezkontza-ahaidetasunaren hirugarren graduraino; edo pertsona fisiko edo juridikoren bat aldi berean denean errentatzaile eta errentari.

Negoioaren egoitza ohiko etxebizitzan duten alokairuak.

Fidantza eta berme kontzeptuak.

Aldez aurretik ordaindutako diru-kopuruak.

- **Uraren, berogailuaren eta argiaren gastuak:** gehienez ere, jarduera hasi eta lehenengo 3 hilabeteetako kontsumoaren gastuetarako emanen da diru-laguntza.

*Kanpoan gelditzen dira:*

Negozioaren egoitza ohiko etxebizitzan dagoenean sortutako gastuak.

Ez dira sartzen lotune eskubideak.

- **Gizarte Segurantzako kuotak.** (3 hilabete, jarduera hasten den egunetik).
- **Laneko eta kontabilitateko aholkularitza.** (3 hilabete, jarduera hasten den egunetik).
- **Erantzukizun zibileko aseguruak.**

### **3. oinarria. DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA.**

Deialdi honek arautzen duen diru-laguntzarako 2017ko finantzaketa kontu-sail honen kargura egingen da (1 24190 48900, Autoenplegua sustatzeko diru-laguntza, 9.000 eurokoa) "Inicia proiektua 2017" proiekturako.

Diru-laguntzaren ehunekoak eta gehieneko zenbatekoak izanen dira **diru-laguntza jaso dezaketen gastuen %100 (BEZ gabe)**, eta **onuradun edo sozietate** (irregular, mugatu, anonimo) **bakoitzeko 1.500 euroko muga izanen da.**

Diru-laguntzaren muga horretatik **salbuetsita egonen dira** interes bereziko taldeak; horiek zenbateko hauek jaso ditzakete gehienez ere:

1. **1.600 euro:** Zizur Nagusiko udalerrian erroldatutako pertsonak, urtebeteko antzinatasunarekin JEZeant alta eman baino lehenagotik.
2. **1.700 euro:** iraupen luzeko langabeak (azken 18 hilabeteetan 12 hilabetez Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda egondakoak).
3. **1.800 euro:** 30 eta 55 urte bitarteko langabetuak.
4. **1.900 euro:** %33tik gorako desgaitasuna duten langabetuak.
5. **2.000 euro:** %33tik gorako desgaitasuna duten emakume langabetuak.

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen kasuan, zenbatekoak ehuneko 10 igoko dira.

### **4. oinarria. ONURADUN IZAERA ERDIESTEKO BETEBEHARRAK.**

Onuradun izaera erdiesteko, eskatzaileek, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluko betebeharrak orokorrez gain, honakoa izan beharko dute:

**1. Langile autonomoak, enpresa jarduera 2016ko abenduaren 1etik 2017ko urriaren 31 arte hasi dutenak.** Ondoko baldintza hauek bete eta diru-laguntzak ematen direneko ekitaldi ekonomikoetan mantendu beharko dituzte. **Baldintzak:**

- a) Enpresari alta ematea edo hura eskualdaketa bidez eskuratzea 2016ko abenduaren 1etik 2017ko urriaren 31 arte, eta Zizur Nagusiko jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta eman.
- b) Gizarte Segurantzako araubide berezian autonomo gisa kidetzea.
- c) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako debekuetako batean ez egotea. Halaber, aipatu artikuluan 2.e) puntuarekin bat, onuradunek eguneraturik izan beharko dituzte beren zerga betebeharrak guztiak. Hori frogatzeko Zerga Ogasunaren eta Zizur Nagusiko Udalaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.
- d) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean izatea. Horretarako behar diren ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte (Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantzak).

e) Zizur Nagusiko Udalarekiko zerga betebeharrei dagokienez, ofizioz egiaztatuko da inguruabar hori eta behar den eginbidearen bitartez jasoko. Orobat, diru-laguntza emateko proposamena egin aitzin, ofizioz egiaztatuko da interesdunak ez duela Udal Diruzaintzari ordaindu beharreko zenbatekorik.

**2. 2016. urtean eskaera epean eta modu egokian aurkeztu zuten langile autonomoak**, baina haien eskaera osoa edo partez ez bazen aintzat hartu aurrekontuetako Autoenplegua sustatzeko diru-laguntza izeneko **1 24190 48900** kontu-saila agortu zelako.

Onuradun horiek ez dute eskaera berririk aurkeztu beharko. Haien eskaera ebazteko, 2016. urteari dagokion dokumentazio beharrezkoa ekartzeko eskatzen ahalko zaie posta ziurtatuaren bitartez.

Diru-laguntzaren xede izan den enpresak jarduera uzten badu, Udalari horren berri eman beharko dio "jardueraren amaieraren" eskabidea aurkeztuz. Bertan horretarako arrazoiak adieraziko ditu eta Udalak horiek baloratuko ditu, jasotako diru-laguntza itzuli beharko duen ala ez erabakitzeko.

Onuradun izan daitekeena sozietate irregular, erantzukizun mugatuko, kooperatiba edo gisa horretako sozietate bateko partaidea bada, hura eratu zeneko akta aurkeztu beharko du, bazkide kopurua eta haien ordezkagarritasuna jasotzen dituen. Kasu horretan, laguntza ez da langile bakoitzeko emanen, baizik eta sozietate bakoitzeko.

## **5. oinarria ONARTUAK ETA BAZTERTUAK.**

### ***Interes bereziko taldeak:***

1. Zizur Nagusiko udalerrian erroldatutako pertsonak, urtebeteko antzinatasunarekin JEZeant alta eman baino lehenagotik.
2. Iraupen luzeko langabeak (azken 18 hilabeteetan 12 hilabetez Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda egondakoak).
3. 30 eta 55 urte bitarteko langabetuak.
4. %33tik gorako desgaitasuna duten langabetuak.
5. %33tik gorako desgaitasuna duten emakume langabetuak.

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen kasuan, zenbatekoak ehuneko 10 igoko dira.

**Baztertuak.** Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak ez zaizkie hauei aplikatuko:

- Sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak.
- Fundazioak, teknologia zentroak, lanbide elkargoak eta elkarteak.
- Langile autonomoak, autonomoen erroldan alta emanik egon badira Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako epigrafe berean edo antzekoan, jarduera hasi aurreko azken hamabi hilabeteetan.

## **6. oinarria. ESKABIDEEN AURKEZPENA: EPEAK, TOKIA ETA ESKATUTAKO AGIRIAK.**

Eskabideak aurkezteko epea hasiko da behin betiko deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean. Aurtengo urriaren 31 izanen da deialdi honetako diru-laguntzak eskatzeko eskabideak aurkezteko muga eguna.

2016an eskaera behar zen epean eta moduan aurkeztu arren, kontu-saileko dirua agortzeagatik hein bateko laguntza edo osoa jasotzerik izan ez zutenek ez dute beste eskaera bat aurkeztu beharko.

Deialdi honetako eskabideak eta eranskinak Udalaren web orrian eskuratu daitezke: [www.zizurmayer.es](http://www.zizurmayer.es). Eskabideak eredu normalizatuetan aurkeztu beharko dira, eskabide orriaren atzeko aldean agertzen diren agiriekin batera. Aurkezten den eskaera behar bezala baloratu eta ebazteko, Zizur Nagusiko Udalak behar dituen argibide osagarri guztiak eskatzen ahalko ditu.

Eskabideak Zizur Nagusiko Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, Herritarrendako Zerbitzuen Alorrari zuzenduta (Tokiko Enplegu eta Garapen Zerbitzua) edo posta ziurtatua erabiliz. Epea 2017ko urriaren 31n bukatuko da, 14:30ean.

**ZIZUR NAGUSIKO UDALAREN ERREGISTRO OROKORRA:**

Erreniega parkea, z.g. 31180 Zizur Nagusia (Nafarroa)

☎ 948 18 18 96 / 948 18 19 00

Eskabidearekin batera honako **datu eta agiriak**, 4. eta 5. oinarrietan zerrendatutako baldintza espezifikoak betetzen direla ziurtatzen dutenak, aurkeztuko dira:

- **Eskabidea aurkezten duen pertsonaren datuak:** NANaren fotokopia, izena edo sozietatearen izena, kargua, helbidea, herria, posta kodea, harremanetan jartzeko modua (telefonoa, helbide elektronikoa), gizarte segurantzako kontua, jarduera mota (kodea eta izena) eta datu pertsonalak, zalantzak argitzeko.
- **Sozietatea eratu zeneko akta edo eskritura**, hala badagokio, haren bazkide kopurua eta bakoitzaren partaidetza edo ordezkaritza ehunekoa egiaztatzen dituenak.
- Eskatzailea **JEZean alta emanda dagoela frogatzen duen ziurtagiria**.
- **JEZ ordaindu duela frogatzen duen agiria**.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian **Autonomoen Araubide Berezian alta emanda dagoela** egiaztatzen duen frogagiria.
- **Foru Ogasuneko zerga betebeharrak eguneratuak dituela frogatzen duen agiria**.
- **Gizarte Segurantzako betebeharrak eguneratuak dituela frogatzen duen agiria**.
- Diruz laguntzekoak diren hasierako gastuen eta gastu arrunten **fakturak eta bankuko frogagiriak**.
- Deialdiaren oinarrietan (II. Eranskina) **ezarritako bazterketen gaineko aitorpena**.
- Deialdiaren oinarrietan (III. Eranskina) **ezarritako onuradunen baldintzen gaineko aitorpena**.
- **Eskabidea, transferentzia bidez ordaintzeko** (IV. Eranskina).
- Zizur Nagusiko Udalak eskatzen ahal duen beste edozein agiri.

Diru-laguntza hau eskatzen bada **interes bereziko talde bateko partaide gisa**, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- NANaren fotokopia.
- Autonomoen Araubide Berezian alta ematen duen pertsonaren erroldako ziurtagiria, urtebeteko gutxieneko antzintasuna jasotzen duena (Zizur Nagusiko Udalak eskatu beharrekoa).
- Enplegua eskatzeko txartela edo Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren ziurtagiria, luzaroko langabea dela frogatzen duena (PLD).
- %33tik gorako desgaitasunaren ziurtagiria.
- Genero indarkeriaren biktima dela frogatzeko agiriak.

Agiriak jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak izanen dira. Eskatzaileei gehienez ere 10 eguneko epea utziko zaie, jakinarazi eta biharamunetik aitzina, falta diren agiriak aurkeztu edo egindako akatsak zuzentzeko. Halakorik egin ezean eta epea iraganik, eskaerari uko egiten diotela ulertuko da.

## **7. oinarria DIRU-LAGUNTZAK EMATEA.**

Herritarrendako Zerbitzuen Batzordeak espedientea aztertu, eskaerak deialdi honetako irizpideei jarraikiz ebaluatu eta organo eskudunari ebazpen proposamena igorriko dio. Bertan onuradun guztiek diru-laguntza eskuratzeko eskatzen diren betebeharrak guztiak betetzen dituztela jasota egonen da.

Alkatea da diru-laguntzari buruz ebazteko organo eskuduna. Hortaz, batzordeak Alkatezari laguntzak onetsi eta ordain ditzan proposatuko dio, Herritarren Zerbitzuen Alorreko Tokiko Enplegu eta Garapeneko zerbitzu teknikoak luzatutako txostenaren ondotik eta, orobat, Udaleko Kontu-hartzailetzak gastua fiskalizatu ondotik.

Alkatezaren ebazpena gehienez ere bi hilabeteko epean jakinaraziko da, Herritarren Batzordeak espedientea aztertu eta, onespeneraren tramitazioarako, Alkatezari proposamena igortzen zaion egunetik hasita.

Epe hori espresuki emandako ebazpenik jakinarazi gabe iraganik, ulertuko da aurkeztutako eskaera administrazioaren isiltasunaren bidez ezetsi dela.

Presuntziozko edo ezeste espresuaren aurka ondoko errekurtsio hauek paratzen ahalko dituzte interesdunek: 1. Berraztertze-errekurtsioa, egitate administratiboa egin duen udal organoaren aurrean, jakinarazi edo, kasua bada, errekurritzen den egitatea argitaratu eta biharamunetik aurrera hilabeteko epean; 2. Gora jotzeko errekurtsioa Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurrean, jakinarazi edo errekurritzen den egitatea argitaratu eta biharamunetik aurrera hilabeteko epean; eta 3. Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegian, bi hilabeteko epean. Epe hori deialdia argitaratu edo hura aplikatuz egiten den egitate administratiboa jakinarazi eta biharamunetik zenbatuko da.

## **8. oinarria. DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEA.**

Deialdi honetan ezartzen diren diru-laguntzak emateko prozedura oinarri arautzaile hauetan ezarritakoari lotuko zaio, eta bana-banako ebaluazio araubidean tramitatuko dira. Deialdi honetako esleipen-hartzaileendako laguntza bakarria emanen da, gehienez ere 1.500 eurokoa edo 2.000 eurokoa (eskatzaile autonomo edo sozietate bakoitzeko).

Diru-laguntza ordaindu aurretik, onuradunek frogatu beharko dute ezarritako baldintzak betetzen dituztela eta diru-laguntzaren oinarri den jarduketa egin dutela. Ezin izanen da diru-laguntza ordaindu onuradunak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak eguneratuak ez baditu.

Diruz lagun daitezkeen neurri hauen onspena bateragarria izanen da beste diru-laguntza batzuekin.

Emandako diru-laguntza bi hilabeteko epean ordainduko da, Alkatezaren ebazpen egunetik hasita.

Ematen diren diru-laguntzen zenbatekoa aipatutako aurrekontu-aplikazioan erabilgarri dagoen kredituaren mugara bitartekoa izanen da.

Zizur Nagusiko Udalak behar dituen azalpenak eskatzen ahal dizkie eskatzaileei.

Diru-laguntzak emanen dira ezarritako aurrekontuko kontu-saila agortu arte, eta eskabideak ebatziko dira "Zizur Nagusiko Udalaren Erregistro Orokorrera" iritsi eta erregistratzen diren ordenari jarraituz.

Hala ere, uztailaren 21eko, 887/2006 Errege Dekretuaren 58 artikuluan xedatutakoaren arabera, Diru-laguntzen Araudia onartzen duena, aipatu aurrekontu-sailaren kreditu erabilgarria agortzen bada, "Lan Orientabide Zerbitzu"-ko 24190 programaren aurrekontu-saileen kargura zenbateko gehigarri bat baimentzen ahalko da deialdi berri bat egin gabe. Horren eraginkortasuna kredituaren erabilgarritasunari baldintzatua geldituko da, aipatu artikuluan aurreikusitako baldintzen ondorioz.

Kreditu gehigarri honen baimena Alkatetzaren Dekretuaren bidez onartu beharko da, Enpleguaren eta Toki Garapenaren Zerbitzuko Arduradunak proposatuta eta Kontu-hartzailetzaren txostena ikusi ondoren, eta bere kasuan, dagokion aurrekontuaren aldaketa onetsi ondoren.

## **9. oinarria. ONURADUNEN BETEBEHARRAK ETA EZ-BETETZEAREN ONDORIOAK.**

Diru-laguntzaren onuradunak beharturik daude jarduera urtebetez mantendu eta justifikatzera.

Orobat, diruz lagundutako jardueran gertatzen den edozein gorabeheraren berri emanen dute, hura gertatzen den unean bertan. Ez baldin badute jarduera horrekin jarraitzen ezarritako epe horretan, Udalari jakinaraziko diote jardueraren bukaera eguna, eskabidea aurkeztuz. Kasu horretan, ez da ordura arte jasotakoa itzultzeko eskatuko.

Deialdiaren oinarrietako bat betetzen ez bada edo eskatutako agiriak zehaztutako epean aurkezten ez badira, edo garrantzizko irregulartasunik atzematen bada pertsona edo enpresa eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan, organo eskudunak diru-laguntza ezeztatu ahalko du eta jasotako kopuruak itzuli beharko dira.

Diru-laguntzaren onuradunek jasotako zenbatekoak itzuli beharko dituzte Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35. artikuluan aipaturiko kasuetan eta bertan ezartzen diren baldintzetan.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako gorabehera, betebeharrak eta baldintzetan edozein aldaketa eginez gero, aurreko oinarrian aurreikusten den baimen administratiboa eduki gabe, ez-betetzetzat joko da.

Oinarri hauetan aurreikusi ez den orotan Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritako arauak aginduko du.



**AYUNTAMIENTO DE ZIZUR MAYOR  
ZIZUR NAGUSIKO UDALA**

Parque Erreniega, s/n  
Erreniega Parkea, z/g  
31180 ZIZUR MAYOR / ZIZUR NAGUSIA  
CIF: P3190700I  
Tfno.: 948181896  
[www.zizurmayor.es](http://www.zizurmayor.es)

**SOLICITUD DE SUBVENCIÓN PARA EL FOMENTO DEL AUTOEMPLOO  
PROYECTO INICIA  
DIRU-LAGUNTZA ESKAERA AUTOENPLEGUA SUSTATZEKO  
INICIA EGITASMOA**

DATOS DE LA PERSONA SOLICITANTE / ESKATZAILEAREN DATUAK		
NOMBRE Y APELLIDOS O RAZÓN SOCIAL <a href="#">IZEN-ABIZENAK EDO IZEN SOZIALA</a>		
DNI, NIF, NIE <a href="#">NAN, IZF, AIZ</a>		DOMICILIO <a href="#">HELBIDEA</a>
C.P. PK	POBLACIÓN <a href="#">HERRIA</a>	TELÉFONO <a href="#">TELEFONOA</a>
MOVIL <a href="#">MUGIKORRA</a>	CORREO ELECTRÓNICO <a href="#">POSTA ELEKTRONIKOA</a>	
<b>Cuenta Cotización Seguridad Social_IBAN / Gizarte-Segurantzako kotizazio-kontua_IBAN</b>		
PERSONA PARA POSIBLES ACLARACIONES SOBRE LA SOLICITUD ESKAERAREN GAINEKO ARGIBIDEAK ESKATZEKOTAN, NORI		
NOMBRE Y APELLIDOS <a href="#">IZEN-ABIZENAK</a>		
MOVIL <a href="#">MUGIKORRA</a>	CORREO ELCTRÓNICO <a href="#">POSTA ELEKTRONIKOA</a>	
TIPO DE ACTIVIDAD / JARDUERA MOTA		
CÓDIGO <a href="#">KODEA</a>	DENOMINACIÓN <a href="#">IZENA</a>	
TRÁMITE A REALIZAR / IZAPIDETU BEHARREKOA		
Solicita Subvención Proyecto Inicia	<input type="checkbox"/>	<a href="#">Diru-laguntza eskaera Inicia Egitasmoa</a>
Gastos subvencionables: GASTOS INICIALES	<input type="checkbox"/>	<a href="#">Diruz lagundutako gastuak: HASIERAKO GASTUAK</a>
Gastos subvencionables: GASTOS CORRIENTES	<input type="checkbox"/>	<a href="#">Diruz lagundutako gastuak: OHIKO GASTUAK</a>
Alta IAE Ayuntamiento de Zizur Mayor	<input type="checkbox"/>	<a href="#">JEZen alta emanda Zizur Nagusiko Udalean</a>
Fecha alta IAE		<a href="#">Alta eguna JEZen</a>
Fecha alta Seguridad Social		<a href="#">Alta eguna Gizarte-Segurantz</a>

PROTECCIÓN DE DATOS. En cumplimiento de lo establecido en la Ley Orgánica de 13-XII-1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, se le informa que los datos de carácter personal facilitados en el presente impreso, se utilizarán exclusivamente para el ejercicio de las competencias propias de esta Administración y serán incorporados a los ficheros que conforman la base de datos del Ayuntamiento de Zizur Mayor, ante el que podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose al Registro General (Parque Erreniega s/n, 31180 Zizur Mayor)

DATUEN BABESA. Datu Pertsonalak Babesteko 1999-XII-13ko Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, jakinarazten dizugu inprimaki honetan jasotako datu pertsonalak Administrazio honek berezko dituen eskumenak gauzatzeko baino ez direla erabiliko. Datu horiek Zizur Nagusiko Udalaren datu-basea osatzen duten fitxategietan bilduko dira. Beraz, Zizur Nagusiko Udalera zuzenduta gauzatu ahalko duzu datu horiek eskuratu, aldatu, baliogabetu eta horien kontra egiteko eskubidea (Erregistro Orokorra, Erreniega Pk., z/g 31180 ZIZUR NAGUSIA)



**AYUNTAMIENTO DE ZIZUR MAYOR**  
**ZIZUR NAGUSIKO UDALA**

Parque Erreniega, s/n  
Erreniega Parkea, z/g  
31180 ZIZUR MAYOR / ZIZUR NAGUSIA  
CIF: P31907001  
Tfno.: 948181896  
[www.zizurmayor.es](http://www.zizurmayor.es)

**GRUPOS DE ESPECIAL INTERÉS / INTERES BEREZIKO TALDEAK**

Personas empadronadas en el municipio de Zizur Mayor con 1 año de antigüedad anterior al alta en el IAE.	JEZen alta eman baino urte bat lehenago Zizur Nagusiko udalerrian erroldatutako pertsonak.
Desempleadas/os de larga duración (inscritas/os durante 12 meses en los últimos 18 en el Servicio Navarro de Empleo).	Iraupen luzeko langabeak (azken 18 hilabeteetan 12 hilabetez Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda izatea).
Desempleadas/os con edades comprendidas entre los 30 y 55 años.	30 eta 55 urte bitarte duten langabeak.
Desempleadas/os con discapacidad superior al 33%.	%33 baino gehiagoko ahalmen urritasuna duten langabeak.
Mujeres desempleadas con discapacidad superior al 33%.	%33 baino gehiagoko ahalmen urritasuna duten emakume langabeak.

**DOCUMENTACIÓN QUE DEBE ACOMPAÑAR A LA SOLICITUD**

**ESKAERAREKIN BATERA ERAMAN BEHAR DIREN AGIRIAK**

Acta o escritura de constitución de sociedad, si corresponde, donde se acredite el número de socios/as de la misma y su porcentaje de participación o representación	Hala balegokio, sozietatearen eraketa-akta edo eskritura zeinetan egiaztatuko baita sozietateak duen bazkide-kopurua eta horien parte hartze edo ordezkartzaren ehunekoak.
Certificado del/la solicitante de encontrarse de alta en el IAE	JEZn alta emanda dagoela egiaztatzen duen frogagiria.
Justificante de pago del IAE	JEZaren ordainketaren egiaztagiria.
Certificado o justificante de alta en Régimen Especial de Autónomos en la Tesorería General de la Seguridad Social.	Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian Autonomoen Araubide Berezian alta emanda dagoela egiaztatzen duen frogagiria.
Certificados estar corriente de obligaciones fiscales (Hacienda Foral) y de Seguridad Social	Betebehar fiskalak egunean dituela egiaztatzen duen frogagiriak (Foru Ogasuna).
Facturas y justificantes bancarios de los pagos de los gastos iniciales y gastos corrientes a subvencionar.	Diruz lagunduko diren hasierako eta ohiko gastuen ordainketen fakturak eta banku egiaztagiriak.
Declaración sobre las exclusiones establecidas en las bases de la Convocatoria (ANEXO II).	Deialdiko oinarrietan ezarritako diru-laguntzatik kanpo utzitakoei buruzko atalaren gaineko Adierazpena (II. ERANSKINA).
Declaración sobre los requisitos de los/as beneficiarios/as establecidos en las bases de la Convocatoria (ANEXO III).	Deialdiko oinarrietan ezarritako onuradunen betebeharek buruzko Adierazpena (III. ERANSKINA).
Solicitud de abono por transferencia (ANEXO IV).	Eskaera transferentzia bidezko ordaindeta egiteko (IV. ERANSKINA).
Documento Nacional de Identidad (DNI)	Nortasun Agiri Nazionala (NAN).
Certificado de empadronamiento de la persona que se da de alta en el Régimen Especial de Autónomos que recoja la antigüedad mínima de 1 año (a recabar por el Ayuntamiento de Zizur Mayor).	Autonomoen Araubide Berezian alta emanda dagoenaren erroldatze egiaztagiria, non urte bateko antzinatasuna agertzen den (Zizur Nagusiko udalak eskuratuko du).
Tarjeta de demanda de empleo o Certificado del Servicio Navarro de Empleo que identifique la situación de Parado/a de Larga Duración (PLD).	Iraupen Luzeko Langabe (ILL) egoera adierazten duen Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren ziurtagiria edo enplegua eskatzeko txartela.
Certificado de discapacidad superior a 33%.	%33 baino gehiagoko ahalmen urritasunaren ziurtagiria.
Documentación que acredite la situación de víctima de violencia de género	Genero-indarkeriaren biktima egoera egiaztatzen duen agiria.

PROTECCIÓN DE DATOS. En cumplimiento de lo establecido en la Ley Orgánica de 13-XII-1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, se le informa que los datos de carácter personal facilitados en el presente impreso, se utilizarán exclusivamente para el ejercicio de las competencias propias de esta Administración y serán incorporados a los ficheros que conforman la base de datos del Ayuntamiento de Zizur Mayor, ante el que podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose al Registro General (Parque Erreniega s/n, 31180 Zizur Mayor)

DATUEN BABESA. Datu Pertsonalak Babesteko 1999-XII-13ko Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, jakinarazten dizugu inprimaki honetan jasotako datu pertsonalak Administrazio honek berezko dituen eskumenak gauzatzeko baino ez direla erabiliko. Datu horiek Zizur Nagusiko Udalaran datu-basea osatzen duten fitxategietan bilduko dira. Beraz, Zizur Nagusiko Udalera zuzenduta gauzatu ahalko duzu datu horiek eskuratu, aldatu, balio gabetu eta horien kontra egiteko eskubidea (Erregistro Orokorra, Erreniega Pk., z/g 31180 ZIZUR NAGUSIA)



**AYUNTAMIENTO DE ZIZUR MAYOR  
ZIZUR NAGUSIKO UDALA**

Parque Erreniega, s/n  
Erreniega Parkea, z/g  
31180 ZIZUR MAYOR / ZIZUR NAGUSIA  
CIF: P3190700I  
Tfno.: 948181896  
[www.zizurmayer.es](http://www.zizurmayer.es)

El/la abajo firmante, entrega la presente solicitud ante el Ayuntamiento de Zizur Mayor asumiendo los efectos derivados de dicho acto, al tiempo que certifica la veracidad de todos los datos consignados.

Nik, oinpean sinatzen duen honek, Zizur Nagusiko Udalari aurkezten diot hemengo eskaera hau -neure gain hartuta egintza horren ondorioak-, eta ziurtatzen dut bertan jasota dauden datu guztiak egiazkoak direla.

En Zizur Mayor, a \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de 20\_\_

Zizur Nagusian, 20\_\_\_\_ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)an

Firma del/la solicitante / [Eskatzailearen sinadura](#)

PROTECCIÓN DE DATOS. En cumplimiento de lo establecido en la Ley Orgánica de 13-XII-1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, se le informa que los datos de carácter personal facilitados en el presente impreso, se utilizarán exclusivamente para el ejercicio de las competencias propias de esta Administración y serán incorporados a los ficheros que conforman la base de datos del Ayuntamiento de Zizur Mayor, ante el que podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose al Registro General (Parque Erreniega s/n, 31180 Zizur Mayor)

DATUEN BABESA. Datu Pertsonalak Babesteko 1999-XII-13ko Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, jakinarazten dizugu inprimaki honetan jasotako datu pertsonalak Administrazio honek berezko dituen eskumenak gauzatzeko baino ez direla erabiliko. Datu horiek Zizur Nagusiko Udalaren datu-basea osatzen duten fitxategietan bilduko dira. Beraz, Zizur Nagusiko Udalera zuzenduta gauzatu ahalko duzu datu horiek eskuratu, aldatu, baliogabetu eta horien kontra egiteko eskubidea (Erregistro Orokorra, Erreniega Pk., z/g 31180 ZIZUR NAGUSIA)



**AYUNTAMIENTO DE ZIZUR MAYOR  
ZIZUR NAGUSIKO UDALA**

Parque Erreniega, s/n  
Erreniega Parkea, z/g  
31180 ZIZUR MAYOR / ZIZUR NAGUSIA  
CIF: P3190700I  
Tfno.: 948181896  
[www.zizurmayer.es](http://www.zizurmayer.es)

**ANEXO II - DECLARACIÓN SOBRE LA EXCLUSIÓN ESTABLECIDA EN LAS BASES  
DE LA CONVOCATORIA**

**II. ERANSKINA - ADIERAZPENA, DEIALDIKO OINARRIETAN EZARRITAKO  
BAZTERKETAREN GAINEKOA**

D/D<sup>a</sup> \_\_\_\_\_ Jaunak/Andreak

con NIF \_\_\_\_\_ IFZrekin en representación de  
\_\_\_\_\_ -ren ordezkogisa

**DECLARA ser cierta y completa la información que se hace constar en la presente declaración.**

**ADIERAZTEN DUT egia, eta osoa, dela adierazpen honetan jasotako informazioa.**

No haber desarrollado la misma o similar actividad como autónomo en los doce meses anteriores al Inicio de la actividad.

Jarduera hasi aurretiko hamabi hilabeteetan autonomo gisa ez aritu izana jarduera berean edo antzeko batean.

Que expreso mi autorización para el tratamiento Informático de los datos arriba expresados, a los efectos de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de carácter Personal y demás normativa de desarrollo, facultando para el uso Informático de los mismos al Ayuntamiento de Zizur Mayor.

Aurretik jasotako datuak informatikoki tratatzeko baimena ematen dizuet, Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari eta garatutako arauetara jarraiki zeintzuk Zizur Nagusiko Udalari ematen baitie haien erabilera informatikorako ahalmena.


En Zizur Mayor, a \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de 20 \_\_\_\_\_

Zizur Nagusian, 20 \_\_\_\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ ren \_\_\_\_\_ (e)an

Firma del/la solicitante/[Eskatzailearen sinadura](#)

PROTECCIÓN DE DATOS. En cumplimiento de lo establecido en la Ley Orgánica de 13-XII-1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, se le informa que los datos de carácter personal facilitados en el presente impreso, se utilizarán exclusivamente para el ejercicio de las competencias propias de esta Administración y serán incorporados a los ficheros que conforman la base de datos del Ayuntamiento de Zizur Mayor, ante el que podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose al Registro General (Parque Erreniega s/n, 31180 Zizur Mayor)

DATUEN BABESA. Datu Pertsonalak Babesteko 1999-XII-13ko Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, jakinarazten dizugu inprimaki honetan jasotako datu pertsonalak Administrazio honek berezko dituen eskumenak gauzatzeko baino ez direla erabiliko. Datu horiek Zizur Nagusiko Udalaren datu-basea osatzen duten fitxategietan bilduko dira. Beraz, Zizur Nagusiko Udalera zuzenduta gauzatu ahalko duzu datu horiek eskuratu, aldatu, baliogabetu eta horien kontra egiteko eskubidea (Erregistro Orokorra, Erreniega Pk., z/g 31180 ZIZUR NAGUSIA)



**AYUNTAMIENTO DE ZIZUR MAYOR  
ZIZUR NAGUSIKO UDALA**

Parque Erreniega, s/n  
Erreniega Parkea, z/g  
31180 ZIZUR MAYOR / ZIZUR NAGUSIA  
CIF: P3190700I  
Tfno.: 948181896  
[www.zizurmayer.es](http://www.zizurmayer.es)

**ANEXO III - DECLARACIÓN SOBRE LOS REQUISITOS DE LOS Y LAS BENEFICIARIAS ESTABLECIDOS EN EL APARTADO 4 DE LAS BASES DE LA CONVOCATORIA**

**III. ERANSKINA - ADIERAZPENA, ONURADUNEN BETEBEHARREI BURUZKOA, DEIALDIKO OINARRIETAKO 4. ATALEAN JASOTA DAUDENAK**

D/D<sup>a</sup> \_\_\_\_\_ Jaunak/Andreak

con NIF \_\_\_\_\_ IFZrekin en representación de \_\_\_\_\_ -ren ordezkogisa

<b><u>DECLARA ser cierta y completa la información que se hace constar en la presente declaración.</u></b>	<b><u>ADIERAZTEN DUT egia, eta osoa, dela adierazpen honetan jasotako informazioa.</u></b>
<p>El artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de subvenciones, establece que no podrán obtener la condición de beneficiario de las subvenciones reguladas en dicha Ley Foral las personas o entidades en quienes concurra alguna de las circunstancias que se enumeran en el mismo.</p> <p>De conformidad con el citado artículo, declaro que no me encuentro incurso en ninguna de las siguientes circunstancias:</p>	<p>Diru-laguntzei buruzko azaroaren 18ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikulua ezartzen du ezin direla Lege horretan araututako diru-laguntzen onuradun izan artikuluan bertan zerrendatuta adierazitako egoera duten pertsona edo entitateak.</p> <p>Aipatu artikuluari jarraiki, adierazten dut ez nagoela ondotik aipatzen diren egoera horietako bakar batean ere:</p>
<p><b>a.</b> Haber sido condenado o condenada mediante sentencia firme a la pena de pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones o ayudas públicas.</p>	<p><b>a.</b> Epai irmoan ezarritako kondenaren ondorioz diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko gaitasunaz gabeturik daudenak.</p>
<p><b>b.</b> Haber solicitado la declaración de concurso voluntario, haber sido declarados insolventes en cualquier procedimiento, hallarse declarados en concurso, salvo que en éste haya adquirido la eficacia un convenio, estar sujetos a intervención judicial o haber sido inhabilitados conforme a la Ley 22/2003, de 9 de julio, Concursal, sin que haya concluido el período de inhabilitación fijado en la sentencia de calificación del concurso.</p>	<p><b>b.</b> Konkurtsoaren deklarazioa eskatu dutenak, edozein prozeduratan kaudimengabe deklaratu dituztenak, konkurtsoan egotearen deklarazioa jaso dutenak, kontu-hartze judicialaren pean daudenak, eta Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera ezgaiturik daudenak, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako ezgaitasun aldia amaitu ez bazaie.</p>
<p><b>c.</b> Haber dado lugar, por causa de la que hubiesen sido declarados culpables, a la resolución firme de cualquier contrato celebrado con la Administración.</p>	<p><b>c.</b> Administrazioarekin egindako edozein kontratu behin betiko suntsitzeko bide eman dutenak, suntsipenaren kausaren errudun deklaratu badituzte.</p>
<p><b>d.</b> Estar incurso la persona física, los administradores o administradoras de las sociedades mercantiles o quienes ostenten la representación legal de otras personas jurídicas, en alguno de los supuestos de la Ley 5/2006, de 10 de abril, de regulación de los conflictos de intereses de los miembros del Gobierno y de los altos cargos de la Administración General del Estado, de la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas, o tratarse de cualquiera de los cargos electivos regulados en la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General, en los términos establecidos en la</p>	<p><b>d.</b> Pertsona fisikoak, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak, indarra duen arautegian ezarritako balizko egoeraren batean daudenak (Gobernuko kideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguen interes gatazkak arautzen dituen apirilaren 10eko 5/2006 Legea; 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Administrazio Publikoetako Langileen Bateriaezintasunei buruzkoa); edo, Hauteskunde-Jaurpide Nagusiei buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Oinarrizko Legean araututako hautapenezko karguetako edozein ere. Arautegi horietan, edo gai horiek arautzen dituen arautegi autonomikoetan, ezarritakoari</p>

PROTECCIÓN DE DATOS. En cumplimiento de lo establecido en la Ley Orgánica de 13-XII-1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, se le informa que los datos de carácter personal facilitados en el presente impreso, se utilizarán exclusivamente para el ejercicio de las competencias propias de esta Administración y serán incorporados a los ficheros que conforman la base de datos del Ayuntamiento de Zizur Mayor, ante el que podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose al Registro General (Parque Erreniega s/n, 31180 Zizur Mayor)

DATUEN BABESA. Datu Pertsonalak Babesteko 1999-XII-13ko Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, jakinarazten dizugu inprimaki honetan jasotako datu pertsonalak Administrazio honek berezko dituen eskumenak gauzatzeko baino ez direla erabiliko. Datu horiek Zizur Nagusiko Udalaren datu-basea osatzen duten fitxategietan bilduko dira. Beraz, Zizur Nagusiko Udalera zuzenduta gauzatu ahalko duzu datu horiek eskuratu, aldatu, ballogabetu eta horien kontra egiteko eskubidea (Erregistro Orokorra, Erreniega Pk., z/g 31180 ZIZUR NAGUSIA)



**AYUNTAMIENTO DE ZIZUR MAYOR**  
**ZIZUR NAGUSIKO UDALA**

Parque Erreniega, s/n  
Erreniega Parkea, z/g  
31180 ZIZUR MAYOR / ZIZUR NAGUSIA  
CIF: P3190700I  
Tfno.: 948181896  
[www.zizurmayer.es](http://www.zizurmayer.es)

misma o en la normativa autonómica que regule estas materias.	jarraiki.
<b>e.</b> No hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes, en la forma que se determine reglamentariamente.	<b>e.</b> Indarreango xedapenek, araudiaren arabera finkatzen den erara, ezarrita dituzten zerga betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak bete gabe dituztenak.
<b>f.</b> Tener la residencia fiscal en un país o territorio calificado reglamentariamente como paraíso fiscal.	<b>f.</b> Egoitza fiskala erregelamendu bidez paradisu fiskaltzat jotako herrialde edo lurralde batean dutenak.
<b>g.</b> No hallarse al corriente de pago de obligaciones por reintegro de subvenciones en los términos que reglamentariamente se determinen.	<b>g.</b> Araudiaren arabera finkatzen den erara diru-laguntzen itzulketagatiko betebeharrak egunean ez dituzten horiek.
<b>h.</b> Haber sido sancionado mediante resolución firme con la pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones conforme a ésta u otras leyes que así lo establezcan	<b>h.</b> Ebazpen irmoaren bidez zigortua izanagatik diru-laguntzak lortzeko gaitasunaz gabeturik daudenak, Lege honi edo hala etarrita duten beste legeei jarraiki.
<b>i.</b> No podrán acceder a la condición de beneficiarios las agrupaciones previstas en el segundo párrafo del apartado 3 del artículo 11 de esta Ley cuando concurra alguna de las prohibiciones anteriores en cualquiera de sus miembros.	<b>i.</b> Lege honen 11. artikularen 3. ataleko bigarren paragrafoan aurreikusitako taldeek onuradun gisa ezin izango dute agertu baldin eta haien kideren bat orain arte ikusitako debekuren batean aurkitzen bada.
<b>j.</b> Las prohibiciones de obtener subvenciones afectarán también a aquellas empresas de las que, por razón de las personas que las rigen o de otras circunstancias, pueda presumirse que son continuación o que derivan, por transformación, fusión o sucesión, de otras empresas en las que hubiesen concurrido aquéllas.	<b>j.</b> Diru-laguntzak eskuratzeko debekua eragingo die baita enpresei, baldin eta haien kudeatzaileengatik edo beste egoeraren batengatik debekua jaso eta, orain, beste enpresa batzuen luzapena edo haietatik eratorritako (eraldaketa, bat-egite edo ondorengotza bidez) enpresak direla susmatzen bada
Igualmente declaro que no he sido excluido o excluida del acceso a los beneficios derivados de la aplicación de los programas de empleo por la comisión de infracciones muy graves, de conformidad con lo previsto en el Texto Refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto,	Era berean, adierazten dut arau-hauste oso larrien batzordeak ez nauela baztertu enplegu programak aplikatzearen ondoriozko onurak eskuratzetik, abuztuaren 4ko 5/2000 Errege Dekretu Legegileak onetsitako Gizarte Ordenako Urraketa eta Zehazpenen Legearen Testu Bateginak ezarritakoari jarraiki

En Zizur Mayor, a \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de 20 \_\_\_\_\_

Zizur Nagusian, 20 \_\_\_\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ ren \_\_\_\_\_ (e)an

Firma del/la solicitante/[Eskatzailearen sinadura](#)

PROTECCIÓN DE DATOS. En cumplimiento de lo establecido en la Ley Orgánica de 13-XII-1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, se le informa que los datos de carácter personal facilitados en el presente impreso, se utilizarán exclusivamente para el ejercicio de las competencias propias de esta Administración y serán incorporados a los ficheros que conforman la base de datos del Ayuntamiento de Zizur Mayor, ante el que podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose al Registro General (Parque Erreniega s/n, 31180 Zizur Mayor)

DATUEN BABESA. Datu Pertsonalak Babesteko 1999-XII-13ko Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, jakinarazten dizugu inprimaki honetan jasotako datu pertsonalak Administrazio honek berezko dituen eskumenak gauzatzeko baino ez direla erabiliko. Datu horiek Zizur Nagusiko Udalaren datu-basea osatzen duten fitxategietan bilduko dira. Beraz, Zizur Nagusiko Udalera zuzenduta gauzatu ahalko duzu datu horiek eskuratu, aldatu, balioabatu eta horien kontra egiteko eskubidea (Erregistro Orokorra, Erreniega Pk., z/g 31180 ZIZUR NAGUSIA)



**AYUNTAMIENTO DE ZIZUR MAYOR**  
**ZIZUR NAGUSIKO UDALA**

Parque Erreniega, s/n  
Erreniega Parkea, z/g  
31180 ZIZUR MAYOR / ZIZUR NAGUSIA  
CIF: P31907001  
Tfno.: 948181896  
[www.zizurmayer.es](http://www.zizurmayer.es)

**ANEXO IV - SOLICITUD DE ABONO POR TRANSFERENCIA**  
**IV. ERANSKINA - ESKAERA, TRANSFERENTZIA BIDEZKO ORDAINKETA EGITEKO**

DATOS DE LA PERSONA SOLICITANTE / ESKATZAILEAREN DATUAK		
NOMBRE Y APELLIDOS O RAZÓN SOCIAL <a href="#">IZEN-ABIZENAK EDO IZEN SOZIALA</a>		
DNI, NIF, NIE <a href="#">NAN, IFZ, AIZ</a>		DOMICILIO <a href="#">HELBIDEA</a>
C.P. PK	POBLACIÓN <a href="#">HERRIA</a>	TELÉFONO <a href="#">TELEFONOA</a>
MOVIL <a href="#">MUGIKORRA</a>	CORREO ELECTRÓNICO <a href="#">POSTA ELEKTRONIKOA</a>	
CERTIFICACION BANCARIA / BANKU-EGIAZTAGIRIA		
TITULAR DE LA CUENTA (Debe coincidir con el nombre y apellidos o razón social del solicitante del apartado anterior) <a href="#">KONTUAREN TITULARRA (Aurreko ataleko eskatzailearen izen-abizen edo izen sozialarekin bat etorri behar du)</a>		
DENOMINACIÓN DE LA ENTIDAD BANCARIA <a href="#">BANKU-ENTITATEAREN IZENA</a>		
DIRECCIÓN: Calle, número, etc. <a href="#">HELBIDEA: Kalea, zenbakia, etab.</a>		
POBLACIÓN <a href="#">HERRIA</a>		
CUENTA BANCARIA – IBAN (En España el IBAN consta de 24 posiciones comenzando siempre por ES) <a href="#">BANKU-KONTUA – IBAN (IBAN zenbakiak, Espainian, 24 posizio ditu: ES jarrita, beti, hasieran)</a>		
Don/Doña: (Nombre, dos apellidos y cargo)		(Izen-abizenak eta kargua) <a href="#">Jaunak /Andreak eta</a>
Y Don/Doña: (Nombre, dos apellidos y cargo)		(Izen-abizenak eta kargua) <a href="#">Jaunak /Andreak</a>
Apoderados del Banco / Caja (Denominación entidad)		(entitatearen izena) <a href="#">Banketxearen / Kutzaren ahaldunok</a>
Certifican que existe una cuenta bancaria bajo los datos reseñados en el apartado de "cuenta bancaria" precedente y para que conste a efectos de domiciliación de los pagos que deba hacer el Ayuntamiento de Zizur Mayor al solicitante, expiden la presente certificación.	<a href="#">Egiaztatzen dugu aurretiko "banku-kontua" atalean jasotako datuekin kontu ireki bat dagoela, eta, eskatzaileari Zizur Nagusia, hala balegokio, egin beharreko ordainketen helbideratzeetarako egiten dugula honako egiaztagiria hau.</a>	
En (Lugar y fecha) / <a href="#">Non (Lekua eta eguna)</a>		
(Esta certificación debe llevar la firma o firmas de los apoderados/as y el sello del Banco o Caja) <a href="#">(Egiaztagiri honek Banketxe edo Kutzako ahaldunen sinadura edo sinadurak jaso behar ditu, eta haren zizilua)</a>		

PROTECCIÓN DE DATOS. En cumplimiento de lo establecido en la Ley Orgánica de 13-XII-1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, se le informa que los datos de carácter personal facilitados en el presente impreso, se utilizarán exclusivamente para el ejercicio de las competencias propias de esta Administración y serán incorporados a los ficheros que conforman la base de datos del Ayuntamiento de Zizur Mayor, ante el que podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose al Registro General (Parque Erreniega s/n, 31180 Zizur Mayor)

DATUEN BABESA. Datu Pertsonalak Babesteko 1999-XII-13ko Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, jakinarazten dizugu inprimaki honetan jasotako datu pertsonalak Administrazio honek berezko dituen eskumenak gauzatzeko baino ez direla erabiliko. Datu horiek Zizur Nagusiko Udalaren datu-basea osatzen duten fitxategietan bilduko dira. Beraz, Zizur Nagusiko Udalera zuzenduta gauzatu ahalko duzu datu horiek eskuratu, aldatu, balio gabetu eta horien kontra egiteko eskubidea (Erregistro Orokorra, Erreniega Pk., z/g 31180 ZIZUR NAGUSIA)



**AYUNTAMIENTO DE ZIZUR MAYOR**  
**ZIZUR NAGUSIKO UDALA**

Parque Erreniega, s/n  
Erreniega Parkea, z/g  
31180 ZIZUR MAYOR / ZIZUR NAGUSIA  
CIF: P3190700I  
Tfno.: 948181896  
[www.zizurmayer.es](http://www.zizurmayer.es)

Don/Dña. (nombre del/la solicitante o persona que le representa)	Jaunak/Andreak (eskatzailerean edo hura ordezkaten duenaren izena)
En nombre de (1)	Jaunaren /Andrearen izenean (1)
Solicita a la Tesorería del Ayuntamiento de Zizur Mayor que los libramientos que se expidan a su favor sean abonados en la cuenta reseñada en el apartado de "cuenta bancaria". Zizur Nagusiko Udalaren Diruzaintzari eskatzen dio "banku-kontua" atalean jasotako kontuan ordaintzea haren izenean egiten diren ordainketa-aginduak.	
En Zizur Mayor, a _____ de _____ de 20_____ Zizur Nagusian, 20____ (e)ko _____ren ____ (e)an	
Firma del/la solicitante/ <b>Eskatzailerean sinadura</b>	

(1) Indique si actúa en nombre propio o la persona o entidad a que representa, en cuyo caso reseñe los datos del poder en el apartado siguiente:

(1) Idatzi noren izenean ari zaren, zeurean ala ordezkaten duzun pertsona edo entitatearenean; ordezkatzeari bada, notario-ahalordearen datuak eman:

<b>PODER AHALMENA</b>	Nombre del Notario o Notaria ante la que se ha otorgado la escritura Notarioaren izena, zeinaren aurrean sinatu baita eskritura		
	Localidad de residencia del Notario o Notaria Notarioaren bizilekua	Nº Protocolo Protokolo zk.	Fecha de expedición de la escritura Eskrituraren jaulkipen-data

PROTECCIÓN DE DATOS. En cumplimiento de lo establecido en la Ley Orgánica de 13-XII-1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, se le informa que los datos de carácter personal facilitados en el presente impreso, se utilizarán exclusivamente para el ejercicio de las competencias propias de esta Administración y serán incorporados a los ficheros que conforman la base de datos del Ayuntamiento de Zizur Mayor, ante el que podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose al Registro General (Parque Erreniega s/n, 31180 Zizur Mayor)

DATUEN BABESA. Datu Pertsonalak Babesteko 1999-XII-13ko Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, jakinarazten dizugu inprimaki honetan jasotako datu pertsonalak Administrazio honek berezko dituen eskumenak gauzatzeko baino ez direla erabiliko. Datu horiek Zizur Nagusiko Udalaren datu-basea osatzen duten fitxategietan bilduko dira. Beraz, Zizur Nagusiko Udalera zuzenduta gauzatu ahalko duzu datu horiek eskuratu, aldatu, balio gabetu eta horien kontra egiteko eskubidea (Erregistro Orokorra, Erreniega Pk., z/g 31180 ZIZUR NAGUSIA)